



GERIZPE Tolosaldeko Emakume Langileen
Defentsa Taldea

ELKARRIZKETA

Duela aste batzuk publikatu zenuten irakurketan, azpimarra konfinamenduan bertan jarri beharrean, etorriko denaren ondorioetan jarri beharra adierazi zenuten. Zein da zuen analisia birusak sortu duen egoeraren aurrean?

Covid-19ak sortutako osasun-larrialdiak ezagutzen genuen egunerokotasuna guztiz aldatu du; kaleratzeak, erasoak, kontrol soziala... egunez egun langileontzat gero eta gordinagoa den munduan esnatzen gara, eta oraindik okerrera iristeke dagoela aurreikusi daiteke. Izan ere, osasun-larrialdia gainditu arren, hilabete oso zailak izango ditu aurrean langile klaseko kide orok, bereziki sektore zaugarrienek.

Horren harira, Gobernuak hartutako erabakiek informazio esanguratsua ematen dutela, eta gertatuko denaren aurreikuspen ariketa egiten laguntzen dutela iruditzen zaigu. Batetik, ekoizpena ahal den neurrian mantentzeko eta inproduktibo bilakatutako langileak kanporatu ahal izateko mekanismoak ipini dira, jabeen interes ekonomikoak bermatze aldera. Bestetik, ordena sozialari eusten saiatzeko neurri asistentzialak eskaintzen ari dira, aurrera begira langileon ongizatea inondik inora bermatzen ez dutenak. Gainera, ezin da ahaztu neurri horiek ematen diren bezalaxe kendu daitezkeela, eta jaso dutenen eta jaso ez dutenen arteko konpetentzia eman daitezkeela, langile klasearen zatikatzea indartuz, eta bere borroken bidez lortutako hainbat eskubide sozial arriskuan jarritz.

Horrela, ezinbesteko jarduerak burutu ez arren, milaka langile lanpostuetara itzultzera behartuak izan dira aste hauetan, kasu askotan, beraien osasuna bermatzeko baliabiderik gabe. Beste behin, argi ikusi da gehiengoaren bizi-beharrei erantzun beharrean enpresaburu eta banketxeen interesak lehenesten direla sistema kapitalistan. Europar Batasunean, esaterako, enpresek bizirauteko milaka milioi euro bideratzen diren bitartean, ez da bizitzak salbatzeko benetako neurririk hartzen: ezinbesteko jarduerak burutzen dituzten langileei babes-neurri hoberenak bermatzea, ezinbestekoak ez diren jardueren inguruan erabakitzekeo mediku eta adituen gomendioak ardatz hartzea, kaleratzeak debekatzea,...

Bestalde, testuinguru latz honen aurrean langileen erantzuna mugatzeko, "alarma-egoera" deitutakoaren atzean salbuespen egoera politikoa ezarri dute. Jardun politikoa debekatu dute, biltzeko eta manifestatzeko askatasunak bertan behera utzita. Birusaren hedapena ekiditeko neurri bezala langileon askatasun politikoak lapurtzen dituzten bitartean, langileak lanpostuetan elkartzera behartzen dituzte, kontraesana agerian utziz.

Ondorioz, koronabirusaren krisiaren aurrean egotetik haratago, krisi kapitalista luze baten aurrean jarraitzen dugu, pandemiaren ondorioz bizkortzen ari dena, eta langileontzat ondorio oso kaltegarriak utzi ditzakeena, bereziki sektore zaurgarrientzat.

Aipatu duzue noski, emakume langilearen egoera oraindik ere lazgarriagoa izango denaren ideia aurreikusgarria dela. Zein ondorio aurreikusten dituzue?

Aipatu bezala, langile klasearen baitako sektore zaurgarriek jasango dituzte ondorio gordinenak. Aipatu beharrekoa da emakume langileen egoera, berauen lan merkatua orokorrean okerren ordaindutako jardueri lotuta egoten da, nahiz eta garrantzia izugarriko jarduerak bete: haurren eta arreta berezia behar duten pertsonen zaintza, osasuna, garbiketa,... Gainera, kasu askotan lanaldi partzialetara, denboraldi baterako kontratuetara edo kontraturik gabeko lanetara bideratuak izan dira, horrek suposatzen duenarekin.

Egungo testuinguruan, haurren, adinekoen eta arreta berezia behar duten pertsonen zaintzaren arduraren zati handi bat emakume langileen gain erori da. Izan ere, haurtzaindegi, ikastetxe, eguneko egoitza etab. itxi dira inolako alternatibarik edo bitarteko sozialik eskaini gabe. Erantzukizun horri behar bezain ondo erantzuteko batzuek beraien soldatapeko lana utzi edo ordutegia murriztu behar izan dute, eta beraien diru sarrerak nabarmen murriztu dira. Lanaldia laburtu ezin izan dutenak estres ikaragarria pairatzen ari dira, eta ondorioz, beraien osasuna arriskuan dago. Gainera, ezin dugu ahaztu lan horiek burutu bitartean pandemiaren aurkako babes-neurriak ez daudela bermatuta kasu askotan.

Errealitate gordin hori ezkututzen saiatzeko, lan sektore feminizatuen ikusgarritasuna nabarmen handitu da hedabideetan, baina ez da berdina gertatu bertan lanean ari diren emakume langileen egoera eta lan-baldintzekin. Horren aurrean, egoeraren analisi zehatza egin eta berau salatzea dagokigu, gizarte osoaren, eta bereziki egoera zaurgarrienean daudenen ongizatea bermatzeko proposamen falta agerian geratu delako.

Azkenik, azpimarratu nahi genuke konfinamendu garai honetan, zein atzeraldi ekonomikoan, indarkeria testuinguruak areagotu egin direla, eta ondorio latzenak emakume langileok pairatuko ditugula, sistema kapitalistan subjektu menderatu izateagatik. Konfinamenduak isolamendua, bakardadea, estresa eta segurtasun eza dakartza; are gehiago egoera zaurgarrienean daudenenentzat. Bertan kokatu behar dugu biolentzia matxista jasaten ari diren emakumeen egoera; indarkeria salatzeke gaitasun eta aukerak asko murrizten dira bizi dugun isolamenduak eraso burutzen duenarengandik banantzea eta babestea ohi baino oraindik gehiago zailtzen duelako.

Momentu konkretuari dagokionez, zein da zuen eskualdean emakume langileen egoera?

Eskualde gehienetan bezala, Tolosaldean ere emakume langileen egunerokotasuna latza da. Horren adibide esanguratsua izan daiteke lurramendi egoitzan langile eta egoiliarrak bizitzen ari diren egoera lazgarria. Apirilaren 15ean Tolosaldeko Atariaren bidez jakindako datuen arabera, ordura arte 16 egoiliar hil ziren, eta erabiltzaileen ia %50ak eman zuen positibo. Era berean, langileen herena kutsatuta edo bajaran zegoen. Eskualdeko gaixoen kopuru handi bat bertan kokatzen da, eta langileen segurtasuna ez dago inondik inora bermatuta. Aginduak nahasiak direla diote eta materiala iristeko arazoak daudela, beraz, beraien eta inguruko osasuna arriskuan jartzen ari dira langileak lanera joateagatik.

Horretaz gain, eskualdean lan baldintza tamalgarrietan ari diren emakumeen kasuak ugariak dira: garbitzaile enpresetakoak, adinekoen edo behar bereziak dituzten pertsonen zaintzaz arduratzen direnak, interna lanetan ari direnak, inongo segurtasun baliabiderik gabe positibo eman dutenak zaintzen ari direnak, etab.

Horrela, guztion osasuna bermatzeko aitzakiarekin konfinamenduaren beharraz mintzo dira, gure lanpostuetan segurtasun baliabiderik gabe biltzera behartzen gaituzten bitartean. Bertan ikusten da langileen bizitzaren balioa, ekonomia kapitalistaren mantenu eta garapenarena baino askoz baxuagoa dela.

Esan bezala, konfinamenduaren eta atzerapen ekonomikoaren ondorioak langile orok pairatuko dituen arren, gogorren kolpatuko dituenak sektore zaurgarrienak izango dira. Gure eskualdean indarkeria matxistaren hainbat kasuren berri izan dugu salbuespen egoera inposatu diguten honetan. Konfinamenduak dakartzan bakartze sozial eta estres egoerek indarkeria kasuak areagotu ditzakete. Gainera, indarkeria salatzeko gaitasun eta aukerak murrizten direnez, eta isolamenduak eraso burutu duenarengandik banantzea eta babestea ohi baino gehiago zailtzen duenez, ezkutuan geratu daitezke kasu asko eta asko.

Horren aurrean, indarkeria matxista saihestu ahal izateko eta euren aurrean jarduteko protokolo ahalik eta eraginkorrenak garatzeko premia begien bistakoa dela adierazi nahi dugu. Beharrezkoa iruditzen zaigu aipatutako kasu guztiak ezagutaraztea eta emakume langileen interesak lehen lerroan jartzea. Inoiz baino gehiago, elkar babestea eta antolakuntza eraginkor baten baitan elkarrekin lan egitea dagokigu emakume langileen eguneroko bizi baldintzak hobetzeko.

Horren guztiaren aurrean Gerizpek ere bere alea jartzeko intentzioa dauka. Zein da proposamena edo aurrera eramaten zabilzaten jarduna?

Testuinguru honetan, emakume langileen osasuna eta bizitza egunerokotasunean kolokan jartzen ari direnez, guri dagokigu egoerari aurre egiteko bitartekoak egikaritzea. Horretarako, emakume langileok beharrezkoa dugu elkarrekin lan egitea, eta Gerizpetik emakume langileen antolakuntza gorpuztera begira ekarpena egin nahi genuke. Etxean isilpean eta isolaturik

nahi gaituzten honetan, gure azalean jasaten ari garen eraso bakoitza salatzea dagokigu. Horretarako, gerizpeharremanak@gmail.com e-posta jarri dugu martxan, egunez egun emakume langile izateagatik lanean, etxean, kalean, etab. jasaten ditugun zapalkuntza zehatzen testigantzak jasotzeko. Beharrezkoa baita horien berri izatea eta salatzea.

Testigantzak biltzearekin gure nahia hiru helburu betetzea litzateke. Lehena, emakume langileok Tolosaldean bizi dugun egoera ezagutzea eta ahalik eta informazio gehien eskuratzea da. Oso garrantzitsua da bizi dugun testuingurua ongi ezagutzea, eta emakume langileon lehentasunezko beharrak zein diren identifikatzea, horiek lortzera begira antolakuntza forma eraginkorra eskaini ahal izateko.

Bigarren helburua, egunerokotasunean eremu guztietan erasotuak garenon saretze bat egikaritzea da. Bakarrik eta isolatuta nahi gaituzten honetan, elkartasun sareak osatzea beharrezko ikusten dugu. Izan ere, gainera datozen ondorio guztiei aurre egiteko modu eraginkor bakarra langileok elkarrekin antolatu eta gure interes propioei erantzutea da.

Azken helburua, zapalkuntza zehatz bakoitzari aurre egiteko, antolakuntza tresna eraginkorra eraikitzeke ahalik eta indar gehien batzea da. Gure azalean jasaten dugun errealitate gordinari erantzuteari ekin behar diogu, eta emaitza ona izateko modu bakarra elkarrekin lan egitea da.

Helburu horiek bete ahal izateko, Gerizpek bere bitarteko guztiak emakume langileen beharren esanetara jartzeko prestutasun osoa du. Talde berria izanik, mugak izango ditugula jakitun garen arren, gure indarrak eta antolakuntza baliabideak emakume langileon bizi baldintzak hobetzera bideratuko ditugu.